



1/2024 LEHENDAKARI EBAZPENA

Leitza, 2024ko urtarrilaren 9a

GAIA: ALDI BATERAKO ENPLEGUA EGONKORTU ETA FINKATZEKO EZOHICO PROZESUARIO DAGOKION LANPOSTUAK MEREZIMENDU-LEHIAKETA BIDEZ BETETZEKO DEIALDIA. EPAIMAHAIA IZENDATZEA.

MAIDER AMANTEGI URDALLETA, Leitza, Areso, Goizueta eta Aranoko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko lehendakariak, Toki- araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 21.artikuluak onartzen dion gaitasunean oinarritua, honakoa

ADIERAZTEN DU:

2022ko azaroaren 21eko Nafarroako Aldizkari Publikoko 231. aldizkarian argitaratu ziren Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko lanpostu hutsak merezimendu lehiaketa bidez betetzeko deialdia eta prozesua arautuko duten oinarriak, aldi baterako enplegua egonkortzeko eta finkatzeko prozesu bereziaren barnean, Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legean xedatutakoaren arabera.

Behin eskaerak aurkezteko epea igarota, eta deialdiko 5.1 puntuan xedatutakoaren arabera, kalifikazio epaimahaia deialdi hau onetsi ondoren eta izangai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onetsi baino lehen izendatuko da. Kide-kopurua bakoitia izanen da, hiru gutxienez, eta horien ordezkoen kopuru bera izendatu beharko da. Izendapen hori argitaratuko da deialdiaren ezaugarrien taulan zehazten den eta toki erakundearen atarian egonen den deialdiaren web fitxan. Hau aintzat hartuta, honakoa,

Hori guztia aintzat hartuta,

EBAZTEN DU:

LEHENA.- Merezimendu-lehiaketaren bidez betetzeko deialdiaren epaimahai



kalifikatzailea izendatzea:

- Lehendakaria: Maider Amantegi Urdalleta, LAGA Mankomunitateko Lehendakaria
- Lehendakariaren ordezkoa: Itxaro Zabaleta Telleria, LAGA Mankomunitateko Lehendakariordea
- Bokala: Xabier Gartzia Azpirotz, LAGA Mankomunitateko bokala,
- Bokalaren ordezkoa: Xabat Illarregi Marzol, LAGA Mankomunitateko bokala
- Idazkaria: Maider Castilla Elarre, LAGA Mankomunitateko idazkaria
- Idazkariaren ordezkoa: Miriam Arocena San Miguel, Goizueta eta Aranoko idazkaria

BIGARRENA.- Ebazpen hau webgunean argitaratzeko agindua ematea.

Leitzan, 2024ko urtarrilaren 9an

LEHENDAKARIA
Maider Amantegi Urdalleta

IDAZKARIA
Maider Castilla Elarre

Horren guztiaren berri izan dezazun eta dagozkion ondorioak sor ditzan jakinarazten dizut; honen aurka errekurtsio hauetakoren bat jarri ahalko da:

1.- Aukeran, eta beti ere hilabeteko epean, Berraztertze errekurtsioa, egintzaren organo egileari zuzendua, edo Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua.

2.- Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Sailari zuzendua, bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita, aurreikusitako kasuetan salbu.